


Jose Maria
San Sebastian
Latxaga

1933-2008

BIDeGILEAK

Egilea:

Felix Ibargutxi Otermin



JOSE MARIA SAN SEBASTIAN ZUBILLAGA LATXAGA

(1933-2008)

Jatorria eta lehen ikasketak

JAIOTETXEA

Donostiako Latxaga baserrian jaio zen Jose Maria San Sebastian Zubillaga 1933ko maiatzaren 21ean, gero etxearen izena



Latxaga baserria

ezizentzat hartuko zuen euskal idazlea. Hil, 2008ko abenduaren 5ean hil zen. Aita, Juan San Sebastian arrantzalea izan zuen, *Mediterráneo I* ontziko patroia, eta egonaldi luzeak egiten zituena itsasoan, Ternuara-eta joaten baitzen. Ama, Maria Josefa Zubillaga, etxeoandrea zen eta etxeo barazkiak saltzen aritzen zen, zaldi-karroa hartuta. Jeneralean bi morroi izaten ziren baserrian, bata lore-lanetarako, bestea barazkietarako. Lore asko salduko zuten Latxagakoek, etxea Donostiako hilerri nagusitik, Polloetik, oso hurbil zegoelako. Jose Mari, seme-alabetan zaharrena izan



Gurasoak: Juan San Sebastian eta
Maria Josefa Zubillaga

zen; hiru urte geroago Maritxu jaio zen, eta sei urte beranduago Isabel.

Jaiotetxean baratze handia zeukaten, eta sagardotegia. Jende ugari joaten zen sa-



Lehen jaunartzea

gardo edatera eta zerbait jatera. Jose Mariren amak lau gauza prantatzen zituen batik bat: bakailao-tortilla, legatza, bisigua eta txitxarroa. Janari dendera bazen Latxaga, goizeko 7etan zabaldu eta gaueko 10ak arte ixten ez zena. Lehengo Atotxa futbol-zelaitik nahiko gertu, Aldakonea izeneko tontorrean zegoen baserri hura, zabaltzen ari zen Egia auzoaren inguruan.

NAFAR KUTSUKO GIZONA

Naparroa euskal arrobia liburuko lehen kapitulu bere lehen urteetako berri eman zuen: «Naparroa'ko euskal kabi batean igaro nuen nere aurtzaroa; Ugainborda'n, Bera'ko baserrian ain zuzen. Nere amona Maria'ren magaletik asi



Latxaga baserria Donostiako Aldakonean dago



Donostiako ikastetxeko lagun batzuekin

nintzan euskera gure izkuntza ezta zurpatzen. Baserri xuri ortan begiak iriki bezain aguro, euskal giroaren arnasa gartsua artu nuen». Hitz hauetantxe, urrutirago joan gabe, nabaritzen dira Jose Maria San Sebastian *Latxagaren* bi amodio: euskara eta baserria.

Eta ume aroko Berako egonaldi haietan irakurritako Arturo Kanpionen ipuin bategarri sakona utzi omen zion betiko: «Garai hartan, Kanpionen Erraondo'ko azken txistulariaren ipuia, ez bein, askotan baizik irakurri ondorean, betiko zaurituta gelditu nintzan. Ipui orrek gure ergelkeria ikusi arazi zidan; zein azkar gurea uzten degun bestena artzeko, naiz gurea gauzik berexiena izan. Nere euskalzaletasuna ipui orrek erabat esnatu zidan. Kanpion'en lan ori irakurri ezkerotik gaur arte, orduan artu nuan miña etzait joan. Ikusten bai nuen nere inguruan,



Beran haurtzaroan

Bera'n bertan gertatzen zala, Kanpion'ek esaten ziguna; euskaldunak beren buruari arrika emanaz, euskara galduaz».

Argia aldizkariko elkarrizketa batean (2001ean) hau aitortu zuen: «Jaiotze eta berehala eramanez ninduten amonaren baserriera. Ni Nafarroan hazia naiz, eta Nafarroako kutsua eta usaina ditut. Oso baserri pobre batean hazi nintzen. Herritik oso urruti zegoen, eta enkarguak egitera herrira jaisten nintzenean burla egiten zidaten erdaraz ez nekielako. Horrela sortu zen nire barruan euskararenganako ikeragarritzko oinazea».


Ondo zahartuta, hiru bat urte hil aurretik, gaixorik zegoela ospitalean, erizain batek galdetu zion ea zer ogibide izan zuen. Eta Latxagak erantzun:



Mutikotan baserritar jantzita


«Ni baserritarra naiz». Gizonak ohe ondoan zeuzkan egunkariei erreparatuta (tartean *Le Monde* eta *El País*), erizain hark sinesgogorraren keinuak egin zituen. Laster askatu zen korapiloa: «Ni baserritarra naiz, baina apaiz eta idazlea ere bai». Bada xehetasun bat Latxagaren nortasuna argitzen laguntzen diguna: artilezko galtzerdiak janztea atsegin zuen.

Apaiztu baino zertxobait lehenago, halako bidaia inizatiko batzuk egin zituen Nafarroan zehar. Eta txango horietatik ia hogeitun urte geroago, *Naparroa euskal arrobia* delako liburuan, honela kontatu zigun: «Gaztea nintzalarik, nere miñ ori barreanean neramala, Naparroa'ko Au-



Latxagaren argazki «promozionala»

ñamendi aldea ezagutzeko gogoia sortu zitzaidan. Uste nuen Euskalerrri zarra antxe ezagutuko nuela. 1957'garren urtean nere asmoa bete nuen. Donibane Garazi'tik Iruña'raiño oñez atera nintzan. Bide ortan arkitzen diran euskaldunekin mintzatu nai nuen. Bazter politak ikusi nituen, aize garbiz ala birrikak bete, gure edesti zarraren ipuiak entzun ugari, baita naiko lotsatuta atera ere. Luzaide'ko aiton batek esan zidan, “pena da euskaldun usaia galtzia”. [...] Azkenean, Erraondoko txistulariaren antzera ba nuen aritz zar baten ondoan aspergabeko negarraldi bat egiteko gogoia. “Galdu zaigu gure Euskalerrria” zion nere biotzak». Baina bestela ikusi zuen Nafa-



Etzeko liburutegian

roa gero, 1970eko hamarkadako lehen urteetan, berriro herririk herri ibili zenean, ikastolen sorrerarekin poztu zelarik bereziki. Azkenean, 1973ko *Naparroa euskal arrobia* liburu hartan hauxe izan zen epaia: «Bai, gaur egun Erraondoko txistularia berpiztu da».

Makina bat irteera egin zuen Nafarroako herrietara. Horrelakoetan galdezka aritzen zen, euskal erroen aztarnen bila. Bere bizitzako azken aroan itxaropentsu agertu zen, ikastolek hartutako indarra zela-eta. Hau aitortu zion *El Diario Vasco*ri 2000. urtean: «Iraultza handia gertatu da, orain nafar as-

kok maite du euskara eta mina sentitzen du gurasoek ez zutelako ezagutu; eta ni horien atzean nago, ahal dudan modu guztietan bultzatzeko eta laguntzeko, bide horretan aurrera egin dezaten. Esate baterako, Lodoso eta Sartaguda artean ikastola egiteko asmoa dute, Ebro ibaiaren ondoan, eta ehun ikasle dituzte dagoeneko. Hori izugarri pozgarria da».

Eta horrekin batera, Erronkariko euskara berreskuratzeko gogoia agertu zion *El Diario Vasco*ko kazetariari: «Ez da hain zaila, nahiz eta batzuek hiltzat eman eta bere horretan uztea hobe dela pentsatu. Konprobatuta dago posible dela galdutako hizkuntzak berreskuratzea, ikastaro on bat besterik ez da behar, eta guk oso metodo onak dauzkagu euskara ikasteko».

Sarri azaldu zen sanferminetara. Argigarria da arreba Maritxuk kontatutako pasadizo hau: «Behin, Sanfermin batzuetan 2000. urte aldera, Iruñeko Klinika Unibertsitarioan ingresatuta zegoela, ihes egin zuen Alde Zaharrera. Ez zeraman dirurik eta bueltakoan, nekatuta zegoenez, dirua eskatu zien emakume batzuei, autobusa hartu ahal izateko».



Boy scoutekin lanean

APAIZ-İKASKETAK

Baina Latxaga, Nafarroari oso lotua egon bazen ere (zahartzaroan Lizarran etxea erosi zuen, eta herri hartan hobiratua dago), Donostian jaio eta Donostian hildako idazlea dugu. Donostiako jesuitetan egin zituen lehenbiziko ikasketak. Mutikotan, Felitxo Erasok frantsesa irakatsi zion bere etxean, Virgen del Coro kalean. Gero, hamazazpi urte zituela, Gasteizko seminarioan hasi zen; han egon zen 1955era arte. Parisen ere

egin zituen eliz ikasketak, Issy-ko Saint-Sulpice-n, eta Parisko Notre Dame katedralean apaiztu zen, 1958an, Nafarroako ibilaldi sonatu haretxen ondoren. Zortzi egun geroago, Donostiako Gros auzoko San Ignazio parrokian eman zuen meza berria, Alfredo Tamayo josulaguna jardun zelarik sermolari. Latxagak esan zion Tamayori ez zuela gaztelaniazko sermoirik nahi, eta idazlana eskatu zion, hura euskaratzeko. Meza bezperan goizeko ordu biak arte aritu zen itzultze lanean. Halaxe, hurrengo egunean euska-




Meza berria Donostian, 1958an

raz irakurri zuen sermoia Tamayok, nola edo hala. Huskeria dirudi gaur egun, baina frankismo garaiko urte gordin haietan ausardia izugarria zen.

Apaiztu ondoren, Parisko Saint-Séverin parrokian jardun zuen lanean. Gero Teologiako doktoretza egin nahian hasi zen. Horretarako alemanaren ezaguera beharrezkoa ikusten zuenez, Alemaniako Freiburg-era aldatu zen. Hango udaleku batean monitore ari zela, eta aldi berean

alemana ikasten, gaixotu egin zen erabat. Berrogei graduko sukarra jarri zitzaion. Erietxe batera eramanda, goiko masail hezurrean infekzio handia antzeman zioten. Sei ebakuntza egin ostean, azkenean Donostiako etxera itzultzeko moduan gelditu zen. Gero berriro joan zen Freiburg-era, plastikozko masail hezur-ordea ipin ziezaioten. Teologiako doktoretzaren harra barruan zuela itzuli zen Euskal Herrira.

| | |
|---|---|
| Juan San Sebastián y Maria Josefa Zubillaga | San Sebastián'tar Jon eta Zubillaga'tar Miren Joseba'k |
| tienen el gusto de participar a Vd. la ordenación sacerdotal de su hijo | bere seme |
| José María | Joseba Miren'en |
| que recibirá de manos del Cardenal feltrin en la Iglesia de Notre Dame de Paris, el 28 de junio; y que asimismo en la Iglesia Parroquial de San Ignacio de la ciudad de San Sebastián, celebrará su Primera Misa Solemne el 6 de julio a las 10 de la mañana. | apaiz egitea adierazten dizute, eta feltrin Kardena- nala apaiz egille dala Paris'ko Notre Dame Elizan, garagarrilla'ren 28'an izango da; berriz ere adierazten dizute, uztaila'ren 6'an Donosti'ko Inaki Donearen Elizan nola emango dun bere Tenengo Miza Berri Nagusia. |
| San Sebastián, junio de 1958. | Donosti'an, 1958'go garagarrillan. |
| Lachaga (Aldaconea). | Séminaire S. ⁿ Sulpice 6 Rue du Regard Paris (6. ^e) |



1958ko meza berriaren oroigarria



Donostian apaiz

Apaiz eta euskaltzale han eta hemen

OREXAKO EGONALDIA

Donostiako San Joan Jainkoarenaren Anaien ospitaleko kapilau izendatu zuten 1962an. Eta 1969an, Orexako erretore, Tolosa inguruko herritxo zeharo euskaldunean. Han bost urte eman zituen. Asteburuero arreba Isabel joaten zitzaion laguntzera. Herri hura oso garrantzitsua izan zen Latxagaren ibilbidean. Adierazi zuen «herri unibertsitate bat» sortu nahi izan zuela han. Alegia, euskara-ikasleak hartzen zituen, hango baserritarrek beren hizkuntza ezagutza hobetu zezaten. Goizez Latxagak berak ematen zizkien eskolak, eta arratsaldez «mintzapraktika» egiten zuten, nork bere baserrian, lanetan

lagunduz. Urtero 15-16 ikasle hartu zituen, eta eskaria ehundik gorakoa izaten zen; baziren tartean urrutitik etorritakoak ere, hala nola Kalifornia, Alemania, Norvegia eta Aragoikoak. Arreba Maritxuk uste du, hala ere, Orexako herritarrek ez zutela ondo ulertu edo ondo hartu Latxagaren pentsaera: «Jose Mari saiatu zen baserriek aurrera egin zezaten, baina baserritarrek fabrikara nahi zuten joan, ikusten baitzuten baserrietik diru gutxi ateratzen zela», esan digu. Arrebak pentsatzen du aitzindaria izan zela Jose Mari: «Bera izan zen lehenengo baserrietako mintzapraktika antolatu zuena».

Hain zuzen ere, Orexan abade zegoela idatzi zituen Latxagak liburu garrantzitsu

batzuk: *Naparroa euskal arrobia* (Edili, 1973), *Aralarko San Migel* (1973), *Errioxako San Millan* (Edili, 1974), *Orexa etnografia aldetik* (*Anuario de Eusko Folklore*, 1975), *Jaka'ra oñez Naparroan zear* (*La Gran Enciclopedia Vasca*, 1976) eta *Arkaitzetako bisigotiko basilizak Araban* (*La Gran Enciclopedia Vasca*, 1976).

Dena dela, Orexara, bere euskara-maila hobetu nahian joan zen Latxaga hasiera batean, *Argia* aldizkariko elkarrietzeta horretan esan zuenez: «Parisen apaiztu nintzen. Hizkuntza asko ikasi nituen, baina euskaraz nire ingurukoek hobeto egiten zuten nik baino. Aditza ez bagenuen ongi erabiltzen, beste euskalkietako apaizek barre egiten ziguten. Beraz, herri txiki batera joan nintzen aditza ikastera, Orexara».

1973an parte hartu zuen Nafarroako Foru Aldundiak euskara irakasleak prestatzeko abian jarri zituen lehen ikastaroetan. Euskal aditza irakasteaz arduratu zen. Ikastaro haien ardatza Jon Oñatibiaren metodoa zen, *Euskara jolas bidez* zeritzana. Gero maisu-maistra izango ziren gazte haiek jolas batzuk ikasten zituzten, ondoren hurrei euskara irakasteko baliagarri zirenak.



Orexan euskara irakasle 1970eko hamarkadan



San Joan Jainkoarenaren Anaien ospitalean (Donostia) kapilau lana egin zuen

NAFARROAZ BI LIBURU

Naparroa euskal arrobia izeneko liburua 1973an plazaratu zuen, aurreko urteetan Nafarroan zehar egindako hainbat bidaiaren emaitza. Txango horietan, euskal aztarnen bila saiatu zen batik bat, eta atal batzuen izenburua ikusi besterik ez dago:



Naparroa euskal arrobia Latxagaren liburu sonatuena izan zen

«Tafalla ta bere euskal gogo», «Leitze ta bere euskal nortasuna», «Lizarra ta bere euskal bizia» eta «Euskera aintziñako Iruña zaarrean».


Zenbaitetan luze eta sakon aritu zen pertsonaia batzuei buruz, hala nola Urdiaingo erretore zen Jose Maria Satrustegiz; Aita Jorge Riezukoaz; eta Leitzan paper fabrika sortu zuen Patxi Arrazolaz.

Handik hiru urtera, 1976an, *Jaka'ra oñez Naparroan zear* eman zuen argitara. Laster


Parisera, Teologiako doktoretza egitera joan behar zuela-eta, zortzi eguneko ibilaldi bati ekin zion Latxagak. Orexan apaiz zegoen orduan, eta handik abiatu zen, bidelaguntzat mutil gazte bat hartuta, euskara ikasle edukitakoa. Mikel Monedero zuen izena gazte hark, eta Bilbon jaioa zen.

Aurreko liburu hartan bezala, beste honetan ere hainbat datu eskaini zuen bisitatutako herriei buruz. Hau idatzi zuen Latxagak hitzaurrean: «Euskal mendien usaia gogoan, arpegi aurrean, ezpañetan eukitzen dut. Egun bat mendian igarotzea, beti egun zoragarria, baiña aldiro motza, laburra. Aspalditik zerbait geiagoren gogoan neukan. Aspergabeko ibillaldi baten irrika; izadiarekin bat egin, alkaturik bizi, bere inguruan goizetik gabaraiño, eguzkia arpegian artu ala, aize garbia barreneraiño sartzen utzi, gorputza izardiz busti, ankekin lurra zapaldu, ibilli ta ibilli, lasai ibilli, egun bat eta bestea, ezeren kezkarik gabe».

Damaso Intza euskalariaren hitzaurrea ere badu liburu honek, eta besteak beste hau dio: «Ziza-biltzale erne baten antzeko egiten zait Latxaga. Ari etzaio zizalarre bat ikusi gabe gelditzen, dabillan to-



1973an plazaratu zuen
Jaka'ra oñez Naparroan zear



Latxagaren doktore tesietariko bat
1994an plazaratu zen

kietan. Nork-nai dabizkian larretakoak ez baiño, maldetan, mendi, sasi eta malkar eta malkor tartetakoak billatzen ditu. Eta iñork uste etzuan tokietan betetzen du bere pardela, zizarik ederrenez».

PARISEN DOKTORE

1973an Parisera bueltatu zen ikasketak egiten jarraitzera, aurrekoan burutu gabe

utzitako Teologiako ikasketak burutzera. Pariseko Institutu Katolikoko Teologia Fakultatean jardun zuen, Teologiako doktoretza 1976an lortu zuelarik. Eta horrez gain, 1979an Antropologiako doktoretza eskuratu zuen, Parisen bertan, Goi Ikasketetako Eskolan. «Teologiako ikasketak bukatu zituenean, ikusi zuen pertsona zer den jabetu behar zela, eta horregatik ekin zion Antropologia

ikasteari», esan digu arreba Maritxuk. Linguistikako ikasketak ere egin zituen Frantziako hiriburuan. Sorbonako Maurice Molho izan zuen tesiaren zuzendari, 1983an lortuz doktore titulua. Molho bezalako sona handiko irakaslearen gidaritzaz lortzeko, berriz, giltzarria *Naparroa euskal arrobia* liburua izan zen; harritura gelditu omen zen hizkuntzalaria emaitza horren aurrean. «Ni apaiza naiz», esan omen zion Latxagak hizkuntzalariari, eta hark: «Ni atea eta judua, eta minutu

t'erdi besterik ez dut». Baina Nafarroari buruzko liburu horrek ate guztiak zabaldu zizkion.

Sorbonako Jean Claude Chevalier irakaslearen laguntza handia izan zuen Latxagak. Haren etxean maiz biltzen ziren Molho eta beste biak, lanak gainbegiratzeko.

Latxagak hizkuntzalaritzako tesia aurkeztu zuenean (*La représentation du temps dans le verbe basque*, gero gaztelaniaz izenburu honekin publikatuko zena: *La representación del tiempo en el verbo vasco*, Kerexeta arg., 1994), unibertsitateko



Hizkuntzalaritzako doktore tesia irakurtzen Parisen 1983an



Doktore tesia irakurri ondorengo bazkaria. Aldamenean, Molho tesiaren zuzendaria



Etzekoez eta lagunez inguratua doktore tesia irakurri ostean

Richelieu aretoa zabaldu zuten, hogeita bost urtez itxita egondakoa. Eta beste nobedade handi bat ere gertatu zen: egun hartantxe hizkuntzalaritzako doktore titulua eman zioten Jon Oñatibiari, modu postumoan. Lehenengo aldia zen hildako bati halako aitortza egiten zitzaiona. Bere doktore tesi horretan, Elbira Zipitria andereñoak asmatutako egitura hartu zuen aintzat, «Nor-Nori-Nork» delakoa, alegia.

Pariseko urte haietan, eliza-pastoralari buruzko liburu batzuk plazaratu zituen:

Eglise particulière et minorités (1978), *Minorités nationales et liturgie romaine* (1979) eta *La comunidad hispana en la Iglesia católica de EE.UU.*, Nueva York (1979).

ESTATU BATUETAN ETA MEXIKON

1980an baimena eman zioten Amerikako Estatu Batuetan bizitzeko, «ikerketa zientifikoan eta pastorgintzan bere egitekoa betetzeko». Ingeles ikastaroa egin zuen



Manhattanen

Parisen, hiru hilabetekoa, eta handik laster ingelesezko sermoiak egitea egokitu zitzaion. New Yorkeko Manhattaneko Notre Dame elizan apaiz laguntzaile jardun zuen hamalau urtez, hispanoen kapilau. Han ikusitakoekin beste liburu bat idatzi zuen: *Iglesias particulares y grupos étnicos* (1981). Estatu Batuetako hamabost urtetako egonaldi hartaz honela mintzatu zen 2001eko *Argiako* elkarrizketa hartan: «Zoraturik nengoen New Yorkekin. Nire doktoretza baten gaia hizkuntza txikien endak izan zen. Zer eta nola erabili, hizkuntza indartsu eta handien ondoan. Han espainiola enda txiki bezala hartua zen, zigortua, nolanahi

erabilia. Columbia Unibertsitateko eliz katolikoan egon nintzen. Hango San Lukas ospitalean lan egiten nuen, Houstongo San Lukas ospitalearekin elkarlanean ari zena. Houstongoan hasi ziren ebakuntzak egiten eta gure horretan urtero 1.800 egiten zituzten. Sendagai berriak kontrolatzeko talde batean sartu ninduten. Gaixoei laguntzeko, ez zitezen bitarteko huts sentitu, pertsona baizik. Nire asmoa, hona etorri eta lana Nafarroari eskaintzea zen, eta oso ongi zetozkidan irabazitako sosalak. Amerikara joan arte ez nuen dirurik ezagutu, eta han berriz oso erraz egiten zen. Lizarran erosi nuen etxea eta aste erdia hor pasatzen dut».

Arreba Maritxuk honela azaldu digu Jose Marik New Yorke egindako lana: «Gaixo terminalen kasuetan, ospitaleko arduradunek aholkua eskatzen zioten, baina ez teologia aldetik soilik, baita antropologia aldetik ere».

New Yorkeko hamabost urte haien ondotik Mexikora joan zen Latxaga, Ciudad Juárez-era, misio lanetan aritzeko. Han ere liburu moduan plazaratu zituen gogoetak: *La misión de Ntra. Sra. de Guadalupe del Paso del Norte en Ciudad Juárez, Chihu-*


abua (1991). Eta Mexikotik, osasun arazoak zirela-eta, Euskal Herrira etorri zen, orduan ere Nafarroa izan zuelarik gogoan, baina baita Errioxa ere. «Nire maitasun ezkutua Errioxa euskalduntzea izan da. Errioxa zoragarria iruditzen zait eta euskal usaina hartzen diot», adierazi zuen. Saiatu zen Lapoblacion nafar herrian bizi izaten jartzen, Logroñotik gertu, baina arrebek ez zuten toki hori gustuko, zerbitzu publiko gutxiko herria baitzen, eta azkenean Lizarrako etxea erosi zuen. Pozik agertu zen Errioxan 1996an euskaltzale talde bat sortua zelako, *Laminiturri* izenekoa, egoi-

tza Logroñon zeukana, eta 140 kide ere izan zituena. «Euskara irakasten dute, aldikari bat ere badute; ahal dudan guztia egiten dut haiei laguntzeko», esan zuen. Errioxako euskal sustraiak (toponimia eta abar) ezagutaraztea zuen helburutzat elkarte horrek.

Ameriketan zegoelarik, sarri etorri zen Europara: 34 aldiz zeharkatu zuen Ozeano Atlantikoa. Arte-zaletasuna izan zen haren beste ezaugarri bat: 86 aldiz sartu omen zen Louvreko museoan eta 82 New Yorkeko Museo Metropolitanan.



Ciudad Juárez-en apaiz lanean



Oso mendizalea zen

Latxagaren beste alderdi batzuk

EUSKERAZAINTZAKOIA

1980ko hamarkadan Euskerazaintza taldeko kide egin zen. Eta talde horrexek publikatu zion 2002an liburu hau, beste lagun batzuekin batera burutua: *36'ko gudaldiaren suizkillitako idazle gazteak. Peña'tar Josu (Aitza)*. Eta ondorengo urteetan, beste bi lan hauek: *Kanta zarrak. Artxulo baserria Urbanan* (2006) eta *Amodiozko kobla zarrak* (2006). Lehenengo liburu horri buruz hau adierazi zuen: «Liburuan Josu Peña, Aretxabaletako 22 urteko gazte baten artikulua biltzen ditugu. Berak azaltzen du baserritarrek botoa karlistei ematen zieten eta emakumeek abertzaleei. Baina euskararekiko

zuten jarrera kontrakoa zen: Euskaltzaindian bertan ere karlista zirenek euskaraz egiten zuten eta abertzaleak zirenak, denek erdaraz! Mutil honek uste zuen karlistak abertzaleen aldera etorriko zirela. Baita ere uste zuen fusilamenduak bukatu zirela, eta ori idatzi eta hiru egun beranduago bera fusilatu zuten».

Latxaga ez zetorren bat Euskaltzaindiak proposatutako batasun-ereduarekin. Hau adierazi zuen *Argiako* 2001eko elkarrizketa hartan: «Euskal Herria esaten dugu, baina Euskal Herria ez da bat. Zuberoa euskal herria da, eta ez diozu behin ere esango bizkaitar bati zuberotarra denik. Bada zerbait denek daukatena, eta era

berean bakoitzak bere ezberdintasuna du. Euskara ere singularrean esaten dugu, bakarra balitz bezala. Baina zer ikusi du Bizkaiko euskarak Zuberoakoarekin? Amerikan nintzela, Pensylvaniako estatuan bizi den Amien sekta aztertzen egon nintzen. Bere hizkuntza dute, germaniarren familiakoa. Eta konturatu nintzen gu ere hizkuntza familia bat garela. Gipuzkera hartu, eta hain hizkuntza egoiari nola esango diozu dialektoa besterik ez dela! Bizkaiko aditz laguntzailea Gipuzkoakoaren oso bestelakoa da. Euskalki horiek egiazko hizkuntzak dira, munduan beste hizkuntza familia asko dagoen bezala, euskara ere hala da». Eta euskara batuaz honela mintzatu zen: «Arrisku handi bat ikusten diot: euskara erromantze bat bihurtzea. Erdararen morroi egingo dela. Askok 100 hitzetik 60 erdal hitzak sartzen dituzte».

«Rikardo Arregi delako kazetaritza saria» izenburuko artikuluan, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak berari zuzenduriko eskutitza kritikatu zuen: «Baiña zer ikusi nuen eskutitz orren barrenean? Mugarik gabeko esaldiak, asmo illu-

nak eta euskararen orde “romance” bat, euskara erdararen morrontzapean. [...] Euskara garbia eta errikoia lurperatzen dute. Agertzen digutenez, erdal kutsuzko euskarak balio du bakarrik. Jokabide kaxkarrak salatzen ditugula euskara garbizaleok, gu “bunkertarrak” gerala ba dakit esango digutela. Bost ajola. Ez dago gurutzerik gabeko zorionik».

Politika aldetik ez zen sekula nabarmendu. «Nire politika beti izan da politikan ez sartzea, baina kultura aldetik bazter guztiak nahastea», esan zuen. Ekintzailatzat zuen bere burua, eta hau adierazi zuen 2001ean: «Hiru zati bereizten ditut. Bat euskal kulturaren autopista deitzen dudana, Iruñea-Gasteiz artekoa. Nire as-



Euskerazaintzak haren artikuluko bilduma prestatu zuen

moa idatziz propaganda egin eta ikastolez jostea da. Bigarren frontea deitzen diot Ebroko fronteari. Bazter denak nahastuko ditut dirua bildu eta Ebro ikastolez josteko. Hitzetan bakarrik ez geratzeko, milioi bat pezeta emana diot hango ikastola bati. Fronte hau indartzen badugu, Espainia aldetik datozkigun muturrekoak ez dira hain handiak izango. Hirugarrena mendealdekoa, Auñamendiko bidea. Hiru toki horietan ibiltzen naiz, batera eta bestera. Zerbait lortu dutela entzuten dudanean, hara joan eta erreportajea egiten diet».

Lehenago ere kolaboratu bazuen ere, 1994az geroztik hainbat artikulu publikatu zuen euskaraz *Diario de Navarra*. Hedabide horren bitartez Nafarroan euskaltzaletasuna indartu nahian aritu zen bere biziko azken egunak arte. Hona hemen 1994ko izenburu batzuk: «Beran Labiaga ikastola», «Naparroa ta Sabinoren Fundazioa», «Erronkariko urrea, uskara», «Euskara gaur Beran», «Juan Jose Ekisoain euskalzaile argia» eta «Euskal Meza Lizarran».

Halaber, 1994an *Euskerazaintza* aldizkarian sarri publikatzen hasi zen. Lehenbiziko artikuluak «Euskara mestizua» zuen

izenburu, eta haren ondotik, 1995ean zehar, honako hauek etorri ziren: «Euskal aditza noizkoa ote?», «Aita Erroman beratarra eta euskara», «Euskal sinismen zarraren jakintsua: Anes Arrinda Albi-su», «Liburuak eta idazleak. I. Zubiri eta A. Kortajarena», «Zigardiberea baserria euskal iturri», «Euskal itzak Andolan (Andosilla)», «Augustin Zubikarai euskal idazleen artean erraldoia», «Paulin Sorozabal, Euskeraren urrezko langillea».

EUSKAL SENA LIBURUA

1999an *Euskal sena* liburua plazaratu zuen «Auspoa» liburu-sortaren barruan. Artikulu bilduma zen hura, euskal herritarren izaerari buruzkoa. Nekazari giroko herritarra hartu zuen aintzat batik bat. Liburuko hiru argazkiak ere halakoxeak dira, baserri



Etxeko lantokian

girokoak. Lehenbiziko artikuluan, hasiera aldera, honela dio: «Euskaldunak gauza berexi asko dauzka, ez bakarrik izkuntza edo aditza, baita nortasuna guztiz arri-garria». Eta aurreraxeago: «Euskal nortasunaren sustrai oiek ez dire gaurkoak, aintzina garaikoak baizik. Zer ikusi aundia daukate baserriko giroarekin».


Liburu horretan badira gauza bitxiak, hala nola «asmatu» hitzaren inguruko gogoe-ta hau: «Errioxa'n euskaldunak euskara, izkuntza bezala, utzi zutenean, erabillitako azken aditza “asmatu” izan zen. Ez zuten galdu nahi. Gonzalo de Berceo idazleak, XII'garren gizaldian, erderaz idazten du, baiñan euskal itz asko erabiltzen ditu: denak ogeitamar dire. Geiena erabillia “as-mar, asmando” da: larogei aldiz agertzen zaigu itz ori. Ez zuten utzi nai galtzen. Aientzat esanai aundia zeukan».

Latxagaren irudiko, euskalduna «itxia» da eta bere asmoak ez ditu agertu nahi izaten. «Baserritarrak, askotan ez ditu agertu nai barruan dauzkan asmoak. Denen aurrean azaltzea ez du maite. Ala esaten zidan Txuñeberriko Martin'ek: “Bere iritzia ta jokabidea azaltzea beldurra dauka” [...]

“Tolosa'ko perian tratorik ez duzu ikusten agirian, Torrelavega'koan (Santander), berriz, danen aurrean egiten dute”, jarraitzen du.» Eta euskaldunak etxea zaintzea izaten du ahaleginik handiena, Latxagaren aburuz: «Etxea zaintze orrek ematen dizkio lanak euskal gizonari. Gizaldietan zaintzen iraun du. Goizetik altxata lan bakarra du; etxea begitik ez galtzea».

Euskaldunaren beste tasun bat, berak «xomorkeria» deitzen duena da: «Aurrei, berdin, garbi asko esaten zaie: “Ez ibilli zabaltzen auzoan, zer jan dezuten zuen etxean edo nun erosten dun amak janaria”. Ori dena egitea bere burua gaizki zaintzen ikastea da... Gero ez arritu etxe-ko zirritoetatik edo sasi tartetik besteak zer egiten ari diren jakin nai izatea».


Eta liburuaren bukaera aldera, aholku hau: «Lanaren bukaeran aolku bat emango nieke euskaldunei: “Baztertu erdibitzen gaituzten gaiak”. Ludi onetako gauzik errexena, euskaldunak erdibitzea da. Ta alegindu euskaldunak elkartzen, al dugun bide guztietatik. Gutxinaz, batzuek bestiekin urbiltzen».



Pedro Ignazio Barrutiaren *Gabonetako ikuskizunaren* faksimila editatu zuen

LATXAGA EDITORE

Jose Maria San Sebastian bereekin ez ezik, inoren lanekin ere aritu zen. Garrantzitsua da Latxagak 1983an kaleratu zuen Pedro Ignazio Barrutiaren (1682-1759) *Acto para la Nochebuena* edota *Gabonetako ikuskizuna* izeneko antzerki-lanaren argitalpena. Jakina da idazle aramaioar-arrasatearrak XVIII. mendearen erdi aldera ondu zuen obra hau Hego Euskal Herriko euskarazko lehenengo teatro-obratzat hartzen dela, nahiz eta 1897ra arte ez zen inprimatu. Resurreccion Maria Azkue hizkuntzalari ezagunak argitaratu zuen orduan aldizkari batean eta geroztik beste edizio batzuk ere ezagutu ditu teatro-lan honek, baina betiere Juan Karlos Guerra historialari arrasatearrak Azkueri bidali zion transkribaketan



Trebiñuko harkaitzetako elizaxoei buruzko liburua

oinarriturik. Gerraostean Gabriel Arestik eta Joseba Lakarrak egin zuten edizio bana urte batzuen buruan.

Garai batean Guerraren Arrasateko etxe dotorean gordetzen zen jatorrizko testua eskuratzeko zoria izan zuen Latxagak. Liburu zaharrak saltzen zituen bati erosi ziola eskuizkribua dio berak, baina non eta noiz zehaztu gabe. Dena den, liburu horren edizioan (Lopez Mendizabal, Tolosa, 1983) Latxagak Jose Maria Arizmendarreta urte askoan Arrasaten lanean jardundako abade ospetsuari eskerrak ematen dizkio. Erabateko ziurtasunik ez badugu ere, xehetasun honek pentsarazten digu Jose Marik izan zezakeela nola edo hala Guerraren fondoaren berri.

Latxagaren meritua izan zen manuskrito hori berreskuratzea. Baina ez hori baka-

rrik. Baita Barrutiaren testua facsimilean inprimarazi eta transkribaketa berria egiten saiatzea ere. Antzerkiaren testuaz gain, lanaren testuingurua eta azterketa ere eskaintzen digu idazle donostiarrak. Akatsen bat edo beste izan arren, aitortu beharra dago abiapuntu eta oinarri seguruago eta sendoagoak dituztela harrezkero filologo eta ikertzaileek gure teatro zaharreko obra bitxi honen berezitasunak ezagutarazteko edota edizio osatuago bat moldatzeko orduan.

ARTIKULUGILE OPAROA

Hasierako urteetan gai erlijiosoei buruz idatzi zituen artikuluak. *Surge* eliz aldizkaria izan zuen lehen agertokia. 1963an, adibidez, «La formación de los seminaristas en el seminario tradicional» eta «Segundo tipo de seminarios: insistencia sobre la formación sacerdotal» eman zituen argitara. Eta 1965ean publikatu zuen scout mugimenduari lehenbiziko artikulua, aldizkari horretantxe: «Misión del capellán scout». Hurrengo urtean beste bi artikulu idatzi baitzituen scout-ari buruz: «Gure scout taldeak» (*Zeruko Argia*) eta «El movimiento scout católico» (*El Diario Vasco*).



60ko hamarkadan boy scoutekin jardun zen

1966an hasi zen kolaboratzen *Zeruko Argia* aldizkarian, eta 1970ean oso sarri publikatu zituen lanak, gai guztiz ezberdinak astinduz: gazteak eta gogo-jardunak; Zuberoa; pastoralala eta Etxahun; Tafallako euskal giroa; eliza eta euskal kultura; eta mendi artzainen kezka, besteak beste. Ordurako nabarmena zen Nafarroako gaiez zeukan interesa.

1971n, artikulu bana publikatu zuen *Príncipe de Viana* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan, Orexan aurrera atera nahian ari zen egitasmoaren gainean. «Euskera ikasteko erri unibersidadea Orexan» zuen izenbu-



Junes Casenave-Harigile
pastoralgilearekin Zuberoan



Oiartzunen 2004an, Jon Oñatibiaren omenaldikoan. Latxaga erdikoa da

ru *Zeruko Argiakoak*. Eta urte hartan beste hedabide batzuetan hasi zen kolaboratzen, hala nola *Agur*, *Goiz Argi*, *Diario de Navarra* eta *Aranzazun*. 1970eko hamarkada oso oparoa izan zuen artikulugintza aldetik. Aipatutako hedabideetan ez ezik, *Herria* eta *Karmelerako* ere jardun zuen inoiz.

Gero, 1980ko hamarkadan, Ameriketara bizi izanez gero, hango aldiakarietan eman zituen argitaratu artikulak, batik bat Ciudad Juárez-eko *Norte* delakoan.

1993an gogotik hasi zen *El Diario Vasco* idazlanak publikatzen. Eta hurrengo urtean *Diario de Navarra* rako euskal orri-rako hasi zen, «Napar izkuntza» zeritzan atalean, hain zuzen. 1994ko urte hartan,

adibidez, hamasei idazlan argitaratu zituen Iruñeko egunkari horretan. Artikulugile ez ezik, euskal orrialde horren koordinatzaile ere aritu zen, hamar urtez. Ardura hori Manu Oñatibiak pasatu zion.

ADISKIDEAK ETA BESTE

Jon Oñatibiaren lagun-mina izan zen. Gizon hau ikasketaz abokatua zen, baina hizkuntzaren didaktika arloan lan asko egingakoa, eta metodo bat asmatutakoa. 1970eko hamarkadan batera egin zuten lan Nafarroako Foru Aldundiarentzat, maisu-maistrei euskara irakasten. Latxaga Orexan jardun zenean ia astero joaten zitzaion bisitan. Justo Azkue ere lagun handia izan zuen. Enpresa-gizona zen, donostiarra baina azpeitiar jatorrikoa. Latxagak Sorbonan hizkuntzalaritzako



Azkeneko argazkietako bat

doktoretza lortu zuenean ere hantxe izan zen, eta hain zuzen berak ordaindu zuen ospakizun-otordua.

Bixente Latiegi apaiz idazlea izan zen beste adiskide-min bat. Latxaga eta bera elkarrekin aritu ziren Aragoiko euskal aztarnen bila. Miguel Pelay Orozco donostiar idazlearekin ere harreman handia izan zuen. Sarri jardun ziren hizketan euskal izaerari buruz. Julian Bereziartua sendagile azpeitiarrarekin ere ibili ohi zen. Haren bitartez ezagutu zuen Latxa-



Sarri joan zen Hueskako Santa Orsiako erromeriara

Latxagatik Lizarrara euskeran zehar

Fito Rodriguez Euskal idazlearen Elkarteko lehendakaria (Egiako Latxagatik)

Donostiala Egiara aspaldidantik, giza- eta kulturako herriak berriro berreskuratzen ari dira. Nafarroako Lizarran amaitu egiten den bidai laburra edo, aldiak, hura oso izan daiteke, espazioan nahiz denboran, geografian edota giza kulturaren zehar.

Hala euskerari noia euskeraren sustapeneri ere. Jose Maria San Sebastian Zubillagak emariluz ere murrizten azaltzen erretza ez izan arren, behar bada baituen batek, bere motzean, haren ulelarena argitako hitloa lekuakelakoa, hura haren.

Badira honetako hogei hama urte (1978) Gipuzkoako Oroa herriakara joan nintzela euskeraren sustapenera nahian eta hantxe, nire nabia bera zuten beste euskaltale askorekin topo egin nintzen, adiera hura oraindik orain hil den Egiatik joandako apaiz bati zor geroa jabetu nintzen.

Han nengola apaiz hark idaztitako *Jakara oher Nafarroa zehar* (Labaitza, 1976) eta *Nafarroa euskal artikulak* (Egile, 1973) irakurri nintzen eta berri hikerak zuten garrantziak ere ohar zioke adiera izan nuen baita, Euskerazalztan (euskeraren erri akademika) lehen-dakaria izan zenaren gipuzke-

razko lehenengo testuez gozatzera ere.

Hori eusker, diru saba, hantzean lantzen gero nire Doktorego Tesia izango zena: *Zer zozieritza, zer merrik gorteko herri-azte* (UPV/EHU, 1988) baina ordurako ezagunak nintzen

Latxagak Parisen aurkezturiko *La representation du temps dans le verbe basque* (J. Oñativia-rekin batera bere Doktorego Tesia izan zena) eta *Zeruko Arjea* (UPV/EHU, 1988) baina ez zizkizkiz artikulak. Harriparria zen (garai hartan, agian, orain baino gehiago) frantsesez, ingelesez edo gaztelaz idatzeko gauza zena euskeraz ere horren dotore moldatzen jakiten, baina hura zen Oroaen aldeko baita-koa eta 1968an Parisen apaitu zena.

Paristetik Estatu Batuetara eta handik hura, Babilde hura, bada, Latxagatik Latxaga sor- kura itzulitako non, aldeaz au-

rretik bere idazleak euskeraz gaitzen zena, bertatik bertara euskeratik izan zena. Arago, dagoeneko gure etxe bilakatu- tako Latxaga honetan bildu gi-

«Historrean udako eulien jaiak edota zuzenak sortutako ohuren traha egin da euskerik konparatu beti zuzen dagoen gure Latxaga»

Abendu honetan, betirako joan da euskeraren erlijio batuaz kanpo euskal hizkuntzen bizitza defendatu duen herejea baino gehiago profeta izan nahi izan dena

nen lagun batzuk, Jose Luis Alvarez Eguarasana (Telleriategi) eta Mikel Urkioa tarteko, Jose Maria San Sebastianen *Azkaletzen Sena* (Senela, 1989) liburua Egiako Kultur Etxean aurkezteko. Egun hartan, nire motzean, honako hiru bozafetako auzartik nahikozko izan nuen:

«Historrean udako eulien jaiak edota zuzenak sortutako ohuren traha egin da euskerik konparatu beti zuzen dagoen gure Latxaga»

Latxaga Etxeak zuzten diruan baina Latxaga idazle hil berri da. Pertsona, pertsonaia eta giza- zaldia, hizkuntza eta euskeraren jakin-mina eta herri-izantza... Jose Mari San Sebastian Zubillaga, gure Latxaga, nekaz adiera gerozako beste inonkin aldiera amaitzeko baitzen, beti aldare balarko izan bada ere. Abendu honetan, ordea, betirako joan da euskeraren erlijio batuaz kanpo euskal hizkuntzen bizitza defendatu duen herejea baino gehiago profeta izan nahi izan dena. Bejo bere betiko Nafarroako Lizarran betirako.

Latxaga hildakoa, Fito Rodriguezek argitaratutako artikulua

gag Azpeitiko idi- eta ahari-demak. Sole Erbiti, 1970eko hamarkadan Nafarroako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria izandako emakume ultzamarra ere oso begiko izan zuen Latxagak.

Edonola ere, halako menditar ilustratu bat izan zen Latxaga. Edo izan nahi izan zuen behintzat. Txikitari, Beran aitona-amonon baserrian izandako egonaldiek arrasto sakona utzi zioten. Izatez donostiarra zen, toki oso urbano bateko biztanlea, baina mendirako joera agertu zuen beti. Seguru asko, iruditzen zitzaizkizkiz mendiko paraje haietan gordeta zegoela ondoen euskal sena, euskal arima. Ez da kasualitatea: zahartzaroan *Euskal sena* jarri zion izenburu bere liburu bati, eta gaixorik zegoelarik ospitalean erizain ba-

tek galdetu zionean ogibidea, hark erantzun: «Ni? baserritarra».

Apaiztu eta gero, Orexa aukeratu zuen bere bizitza-proiekturako. Sentitu zuen goi haietako (420 metrora dago Orexako eliza) baserritar haiek eredugarriak zirela eta zer erakutsia franko zutela, ez bakarrik hizkuntza kontuetan. Herri-unibertsitate bat amestu zuen. Gizon jakintsua izan zen Latxaga, baina nahi baino eragin txikiagoa izan zuen euskal gizartean. Batetik, hizkuntzalaritzako ikasketak urruti egin zituelako, eta apenas izan zuen hemengo unibertsitate giroarekin harremanik. Bestetik, Nafarroan mugitu zelako batik bat, hau da, euskalgintzaren bazter batean. Batua onartu ez izanak ere areagotu egin zuen bazterreko izate hori.

Ameslaria izan zen. Nahi izan zuen Nafarroako Erriberan ikastolak sortu, Errioxan euskara indartu, erronkaria berpiztu. Ez ziren nolana hiko ametsak. Baina abade ere bazen, eta azkenean

apaiz-lan horiek gailendu zitzaizkion. Gainera, urruti eman zituen lan-bizitzako azken hogeit hamar urteak, Estatu Batuetan eta Mexikon. Erretiroa hartu eta gero, Euskerazaintzako lagunartean izan zuen aterpe. Eta udaro Huescako Pirinioetara joaten zen, Santa Orosiako erromeriara. Uste zuen euskal sustraiak haraino iristen zirela. Hura, mendian pozik.



Heriotzaren albistea



Latxagaren hilarria eta arrea Maritxu (Lizarra)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- San Sebastian Zubillaga familiari
- Euskerazaintzari

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2010eko abendua
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • www.eps-grupo.com
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • www.graficassantamaria.com
ISBN: 978-84-457-3098-0 (Lan osoarena)
978-84-457-3101-7
L.G.: VI - 540-2010

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística